

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

**Vitoria-Gasteizko Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaleko 8.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak erosteko orotariko tasazio bidezko desjabetze-dosierrak ukitutako ondasun eta eskubideak ordaindu eta okupatzeko aktak jasotzera agertzeko deitzea**

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2021eko azaroaren 11ko dekretua dela medio, honako hauei dei egiten zaie ordainketa- eta okupazio-aktak sinatzeko egingo den ekitaldira ager daitezen 2021eko abenduaren 16an: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaleko 8. eko jabeen erkidegoa (11:00etan eta 11:20an), Iquimesa Servicios Sanitarios, SLU (11:00etan), eta 16288805D zenbakiko nortasun-agiriaren jabea (11:20an). Ekitaldia udaletxeko alkatetzaren 3. aretoan izango da -Espainia plaza, z/g, bigarren solairua- .

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 16an

*Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ANA OREGI BASTARRIKA**